

GAZTE NAIZ

Ezkertasuna

IXILTASUNA

Gure artean, ezkertasuna ez dago modan, eta, dagoen tokitan ere, askotan hori besterik ez da; moda bat. Beste problema baten premiak lotzen du gure atentzioa; baiñan oartu nola askotan problema baten eskusidada ideal bezela bizitzeak, problema hori mitifikatu egiten duen, beste lorkizun eta bear batzuek ahaztu arazteaz batera.

Ez, gure artean ezkertasuna ez dago modan; eta beste Europa-ko toki askotan berriz modatik pasatzen ari da... Orrela diote, beren poza ezin disimulaturik, erruki pixka baten itxurak egiaz, kontinente zaharrek eskuindarrak beren idazkietan. Esaten dute, eta nik uste det ez nola-naiko pozarekin.

Izan ere, begirada ariñ bezin Europa-ko ezker partiduen azterketa egiañ ezkerro, ezin ukatu berrietan krisis giro sakon bat nabaitzen danik. Desmoralizazio horren arazoak, nere ustez, bat baiño geiago dira. Batetik, marxismoaren interpretazio ximple eta dogmatikoegiak sortu dituzten giro eta postura batzuen erortzea, interpretazio hoiek ofiarritzen zituen azaleko realitatea neokapitalismo baten saiatzeko zerbait aldatu duen ezkerro. Bestetik, Rusoak gero eta geiago artzen ari diran itxura bigun eta «konbinteak» egitazko izjiritu reboluzioaleetan sortu duen dezepzioa. Baita ere alienazioak gaurko egunetan artzen dituzten milla itxura berrieri burruka egiteko ezker partiduen pentsamendu eta jokabideetan nabaitzen den dinamika eta ilusio falta. Azkenik, Europa-ko ezker partidu geienak «rugarren mundukoak» deitzen zaien nazioen aurrean sufritzen ari diran desprestijioa, jokabide oker eta bereko batzuen ondoren bezela (esate baterako, Argelia-ri buruz Frantzia-ko komunista partiduak artu zuten postura fasizista eta menperatzailea).

Hauke denak dira arazoak, eta ez dira gutxi, eta krisiak benetan sakona dirudi, eta, nola ez, penagarria da eta ez luke orrela bear.

Izan ere, ezkertiarra izatea ez da erreza. Ezkertasuna ez dago politikari buruzko iriztietan edo sozialismoagana-ko naimen batean bakarrik; baizik eta gure bizitzako erabaki, pentsamendu eta giza-postura guztietan nabarmendu bear den alakoxe exijentzi sendo eta aurrerakoi batean

dago benetako ezkertasunaren izpritua. Eta exijentzi leial hori oso gutxi betetzen dute, bai bizitza partikularrean eta bai elkar-bizitzan ere.

Erreza da ezker partiduetan afiliatu eta beren jokabide ofiziala jarraitzea; zailla, ordea, ezker partiduen barruan ezkertiarra izaten jarraitzea. Eta zailla, batez ere, bai pertsonentzat eta bai partiduentzat, rezoluzioaren izpritua itzaltzen utzi gabe, garaiak eskatzen dituen estratejiatan jokatu eta nortasun sendo batekin erabiltzea. Europa-n, itxurak beintzat, demokrazien legean bizi da jendea; lege horrek, parlamentarismoa eta eztabaidak ekartzen ditu ondoren bezela. Eztabaida hoietan, eta askotan bearrezkoak diran zenbait kolaborazioko postueta itzali eta galdutuzen da ezker espiritua. Oposizioko postura gogor batean beti egotetik ere ez dagola, diote. Eta egia izango da. Benetan, eskuindarren jakintza, oitua, jazereta eta komodidade berdiñekin bizi den Europa-ko ezkertiar bati etzaio erreza izango rezoluzioaren espirituan leial eta tinko irautea.

Baiñan bear dute ezkertiar guziak beren eginkizunen kontzientzia artu eta, gutxienez, nazio atzeratueto jendeak eueri itxaropen pixka batez begira daudela oartu. Exkerrak beren responsabilitate eta posibilidadeen kontzientzia galtzen badituzte, zer izango da Europa-taz? Fasismo zahar baten eraberritze maltzur eta trixte bat. Hori hor.

Hemen, euskaldunen artean, ezkertasuna ez dago modan. Beste lorkizun atzetik saiatzeko gerala esateak ez ditu justifikatzen ezker-problemen ganako ezjakintasun eta ajolagabekeria. Eta ziur egon, noizbait gure itza entzuna baldin bada, eta itz horrek eskuindar idea eta interesen oiar-tzunak baldin baditu, justizia eta egia esperoan bizi diren jendeeri etzaie itz hori batere maitagarria egingo. Gu bizi geran munduan, menperetasun arpegi asko ditu, eta arpegi guzi horiek urratzeko prest egon bear gure.

Gauzak ez dira sekulan alde bateko edo besteko propagandak esaten duen bezain klaroak eta errezak izaten. Adimentsu eta zuzenki jokatzeko obligazioa daukagu beti, mitoetan gure burua justifikatu gabe.

XABIER LETE

Gazte e i Bai

Harrigarria da gaztediari buruz betidanik gertatu ohi dan eztabaida.

Batzuk gaztetasunaz bertute-aldi huts eta garden bat egiten dute; gazteek diotena ongi da eta, edozein puntutan, gazteen kontra mintzo dena gaizki ari da.

Beste batzuk, aldiz, gaztearen ez dute ikusten arriku-iturri bat zaizkiz; gazteen alde mintzo dana komunista da, ye-ye da, snob eta zoro bat. Fanatiko guziek, horregatik, gazteari «kontrolatzeko» kezka dute, bestela «okertu» egingo dan segurantzian.

Gogaideen artean gertatzen diran istilluz ari naiz. Ideologia-desberdintasuna ez da, noski, zahar-gazteen arteko arazo bat. Kristo'rengan sinistea ala ez sinistea ez da adin-kontu bat.

Baiña, arira bihurtuz, egia ez da eta ez da bestea. Gazteria ez da ez txuri eta ez beltz. Nahi ezkerro, egia nun dan jakitea erroza litzazuke. Aski baikenuke hogeit urteak itzi ditugunok orduko geure burua pitin bat aztertzea. Alegia: hogeit eta hainbeste urte gentuelarik, zer nahi genuen guk? Zerik nazkaten ginduen? Zerik eraman ginduen egoeraren kontra jartzera? Gogaidetan ere, zer-gatik mespretsatzen genituen «zaharrak»?

Ezin esan ditek geure barruan sekulako belkeriak eta aiherrak genituenik. Ez. Guk bihotz osoaz uste genuen orduan gehiago egin zitekeala, gure gizartea erraz alda eta garbi zitekeala. Ez, genuen hau uste harrogeriaz, edo gorrotuz, edo inorekiko errespeturik ezaz. Ez, «berriz. Bihotz hutsaz iruditzen zitzaigun gorago joan zitekeala. Bihotzak bultzatzen ginduen, eta nahirik garbienek, gure aurrean aurkitu genuena ukatzea.

Urteak joan ala, zer ikusi dugu? Gauzak eta eginkizunak zaillago dirala uste genuena baiño. Hauxe da, nik uste, ikasi dugun bakarra. Baiña hauxe da jokabide desberdinen giltzarria.

Montherlant'en liburuetan, esate baterako (eta agiriara eman dituen deklarazioetan berdin), pertsonak ez dute ezertan sinistean, ezertxo ere ezin alda ditekela uste baitute; eta «ezkertasun» bete horren alderdiak, Montherlant «zaharrentzako» idazle dala esan ditek; ezer ere ezin ditekela esaten baitu.

Dana (edo gehiena, bederen) esan ditekela uste dute gazteek. Maharrek aldiz deusik ezetz.

Nun da egia? Errazena da, noski, atsegin ez zaizkizun jokabide guzietan atzean nahikunde beltzak eta bihurriak ikuste. Baiñan, egia aitortzeko ere, askotan «zaharren» ukotan ez dago ez borondate okerrik eta ez idealismo-faltarik ere.

Urteetan zehar «zaharrak» kementsuenek eta bihoztunenek berek behehitu, apaldu, txikitu egin bide dituzte helburuak: ez guztiz, ez arras etsi ditelako, horrelakorik ez baitago askotan; baiña bai hau esateko moduan: «zail da helburua lortzen eta gure gazteak aldatzen».

Euskaldun utsoitz zaharrak, halere, hau dio: «zaharrrago eta tzarrago». Eta hau egia izanagatik ere, gazteek ez dakite beren buruz, baiña hau geure buruen go-gortzea eta gortzea ikusten baitugu: urteak joan ala, eta gure helburu gorenak urrunago ikusi ala, mikaztu egiten da gizona, barne-muñetan mingostu: eta dan apurtari eutsi egin nahi dion, apur hori bera ere ken dakion bildur. Harrokeria ez da, hortara, gaztaroan sortzen, geroago baitzik.

Hau guk ba dakigu, eta gazteek ez. Gazteak baikorregiak dira horrelako kezketan erortzeko edo kokatzeko. Gazteak ez dira harroak, harroa izateko norberaren eskasia ezagutu behar baita. Harrokeria, hortaz, ez da konfiantza-siniale bat (eta gaztetasunaren siniale, beraz), bildurraren eta zahartzaroaren aintzindaria baitzik.

Bildurra geuk dugu beraz, nagusiok, «zaharrok»; eta harrokeria geuk ere bai, ez gazteok. Geuk amor eman behar dugu, ez gazteok.

Alabañan, gazteek berebat, beren aldetik, entzun egin beharko luteke; eta ez dute egiten (eta gehienek ez egingo ere, noski!). Belauñ bakoitzak bere ekarria du, eta eskubide osoa du urrekoek bezela bere modura emateko. Huntaz ez da zalantzarik. Ekarri hori agortu nahi duenak partida galdia du eta errespeta ere bai. On litzake, halere, danen artean alkarriketak gertatzea: mahain borobilletan, kidetasun osoan, adiskide eta helburuak gisa.

Hein batean, noski, alperrik da hau eskatzea. Gazteak, gazte deño eta gazte dan neurrian hain zuzen, ez du sekulan ez sinistzu eta ez sinistuko helburuak obratzeko horren zailla danik. Beti pentatuz izan du, eta pentatuko nik uste, aurrekoek ez dutela adorerik erakutsi, eta hau dala kakoa.

Baiñan alkarriketa bat moldatu ezkerro; eta «zaharrek» lagun gisa, mailakide gisa, lankide gisa, hitziztegin ikasi ezkerro, eta gazteen borondate oraz ongi jabetuz, behar bada zerbait lortu geuke danok.

Batez ere orain, gaztetasuna eta filosofia zahar bat, gazteariaren baikortasuna eta mesianismo gezurrezko bat, batera bilduta aurkuztu nahi zaizkigunean. Eta arrakasta haundiaz orain arte!

LARRESORO

Ixil-ixilik dago erria. Bazkal-ondoa da eta gazte bat edo beste bruxakin edo kalkuakin aldameneko erriruntz dijoaz; gelentsuenak an dira.

Euskal-jaia da. Gaztedia, aikartasuna, alaitasuna, indarra...

Entzutekoak dira bertako abesti eta deadarrak, baiñan ortik aurrera, zer? abesti, deadar ta ondoren... biartzuna. Konturatzun al gera abestien esanaikin? Ezetz esango nuke. Arrisku txikienik ere ez degu nai; lasai bizi nai degu, bizitzeko lain badet eta... Abesterakoan beste gauza bat da, mingainak biotzak sentitzen ez duana errexegi esan oi du, eta geure Erriagatik bizia emateko prest ba-giña bezela agertzen gera.

Esate baterako, aitari semea erderaz asia, arpegira botatzen diogu ta «bihotzean sartua dugu ahalgea» esanaz bukatu ere. Biar goizean euskeraz irakurtzen eta idazten ikasi nai al degun galdetzen badigute jakifekoa da gure erantzuna:

—Astirik banu oso pozik, baiñan astalena: billera
astarte: danza
asteazkena fubola...

Eta orrela asteko egun guztien azterketa egin oi degu, eta min artuko bagenu bezela, irripar gabeko arpegia jarriaz «astirik ez det» esan eta bukatzen degu. Eta Euskera aitatu dedan bezela beste milla gai aitatu ditezke: gizarako arazoak, Euskal Elertia, t. a.

Bai, besteel gauza asko eta errezegi arpegira bota oi dizkiegu, baiña geure buruari buruz ere azterketa sakon bat egin bearrean gaude.

Ixilkeko lanari, irabazia baiño kaltea geiago ekarri oi digun lan triste orri eskuak ezarri nai al-dizkiogu?

Gure abestiak, deadarrak zoragarriak dira, bai, baiñan aizeak daramazki, ta gure uste bateko bero-aldia ere bai.

Ixiltasuna auztu xamartua daukagu, ta zorionez edo zoritzarrez, ixilleko lana da gaur egun erriak eskatzen diguna.

Ainbeste itz zoragarrien ondoren ukatzen ausartuko ote gera?

Euskaldunok itzeokak geran fama degu, agertzeko garaia da eta ez dezagun alperrik galdu.

ITZIAR BIKENDI

Mixiolari...

(3'garren orrialdetik)

ba dezu noski. Euskeraz makiñabat liburu elizkoiren egilea. Or etortzen dira sarritan Europa-ko euskera-zalerik pamatuenak Diputaziagoko Liburutegira, Aita Mendiburu-ren euskeratik euskal itz joera jatorrenak ikastera. An dauka Oartzun-en arriko monumento ederra...

Baño Aita Laramendi-ren berreun urte betetzea zala-ta, geure Telletxea Idigoras apaiz profesore jakintsuak Aita Mendiburu-ren zenbat eta zenbat aldre-beskeri ugertu ez ditul Mendiburu Aita mixiolari zan, jbaño zenbat ezbear egin etzituan!

Aita Laramendi-ren iritzi Mendiburu-k akats ikaragarri bat zeukan. Kristauak, eta baita kristau erri osoak, geiegi beartu maia. Eta geiegi beartu nai onk ondamedni ikaragarriak ekartzen errietara, Aita Mendiburu-ren erremedioak sendatu nai zituzten gaitzal-diak baiño askoz okerragoak izaten!

Eta eskerrak Mendiburu-k inguruan izaten zuela askotan zaitzalle bezela. Bere kasa, bakarrik zebille-nean, Mendiburu-k ikaragarriak egiten bait zituan. Er-ruki izatekoa zala Mendiburu mixiolari bezela bakarrik joaten zan erriya —zion bere paperetan Laramendi-k.

Zer esan nai dizudan oek guztiaikin? Gizona ez da goaola bear baiño geiago bearrerazterik. Gizona ez da la ingerua. Pascal-ek esan zuana: Askotan abere izate gertatzen zaio ingeru mailara iritxi nai duanari.

Berriz ere esango dizut. Gizona al-dezaken baiño geiago ez beñere beartu. Egokitu zaitte inguruko oiturrakin. Gizona mixterio bat da, eta alegiñak egiñagatik, mixterio barren ortan sartzerik ez daukagu. Mixterio ori errespetatu bearra dago. Ez beñere etsi, askotan kale egiten dezula pentasuntagatik. Zure lana sa-reak botatzea bakarrik da. Arrantza Jainkoari bakarr-rik tokatzen zaio...

Agur, Antonio. Eskarrikako ta eskarrikako aukera au eman didazulako. Biotzez besarkada zabal-zabal eta estu-estu bat.

JOSE DE ARTECHE